

Espedientea:	Dirulaguntza izendunak 15000 euro arte 2024WDI10006
Sarrera-erregistroa.:	01632 - 2024/05/31
Dekretu-zk.:	2024/335
Titularra:	ALURR DANTZA TALDEA
Ordezkarria:	NAGORE ZABALA LULUAGA
Gaia:	Dirulaguntza izenduna: Alurr 2024ko programazioa

2024/335 ALKATE DEKRETUA

2024ko maiatzaren 31n, G20693636 IFK zenbakidun den Alurr Dantza taldearen izenean jarduten duen Nagore Zabala Luluaga NAN 72.557.510-P zenbakidunak aurkeztutako Udal Erregistroan 1632 sarrera zenbakidun 2024 urtean zehar garatuko duten "Euskal dantza eta kulturaren sustapena" izendun proiektupeko programaziorako Udal honi egindako 15.000,00 euroko dirulaguntza eskaera ikusirik,

Kontuan izanik, 2024ko maiatzaren 31n **2024WDI10006** espedientea ireki dela,

Kontuan izanik, 2024ko maiatzaren 31n Kultura eta Gazteria teknikariak egindako **2024-KG-TXOS041** txostena,

Kontuan izanik, Udal Idazkariak espedienteari dagokion egindako txostena,

Kontuan izanik, Udal Kontu-Hartzaileak espedienteari dagokion egindako txostena,

Kontuan izanik, 2024ko Udal aurrekontuan **1.09.334.20.481.00 2024 Transferentzia Alurr Dantza taldea** kontu-saila 15.000,00 euroko zenbatekoarekin sortua dagoela,

Zinegotzi honek, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/85 Legearen 23.4, 2568/1986 Errege Dekretuaren 43.3 artikulua araberan eta 468/2023 Alkate Dekretuan esleitzen zaizkidan ahalmenak erabiliz, honakoa

EBAZTEN DU:

LEHENENGOA.- Ibarra G20693636 IFK zenbakidun den Alurr Dantza taldeari 2024 urtean zehar garatuko duten "Euskal dantza eta kulturaren sustapena" izendun proiektupeko programaziorako zuzeneko dirulaguntza izenduna ematea honako arrazoiengatik:

1. Herrian dagoen euskal dantza talde bakarra da.
2. Euskal kultura-ondare immateriala den euskal dantza bultzatzen duelako, herritarren artean zabaltzen duelako eta haren transmisio eta babeserako lan egiten duelako.



3. Gizonezkoen eta emakumezkoen arteko parekidetasuna bultzatzen duelako.
4. Ibarrari izen ona eta ospea ematen diolako.
5. Herriko eragile aktiboa delako, euskal dantza herritarren artean zabalduz eta bertan parte hartzera gonbidatuz.
6. Ibarra haur, nerabe, gazte, eta herritarrei oro har, herrian bertan euskal dantzan murgiltzeko eta jarduteko aukera ematen dielako.

BIGARRENA.- Honako jarduera hauek jartzea diruz lagungarri gisa:

- Ikasturtean zehar, haur, nerabe, gazte zein helduei dantza eskolak ematea.
- Herriko eragile desberdinekin parte hartuz, herrian emanaldiak burutzea.
- Ekintza ezberdinak herrian, beste elkarteekin elkarbanatuz.
- Euskal Herriko dantza talde ezberdinekin kultura artekotasuna lantzea.

HIRUGARRENA.- Ematea 15.000 euroko dirulaguntza zuzena Alurr Dantza Taldeari, bi zatitan ordainduta:

- Lehenengo ordainketa (hitzarmenaren sinadura burutu ondorengo 30 eguneko epean): **12.750,00 € (dirulaguntzaren %85a)**
- Bigarren ordainketa: **2.250,00 € (dirulaguntzaren %15a)** egindako gastua justifikatzen duen kontua alkate dekretu bidez onartutakoan.

LAUGARRENA.- Egoztea aipatu diru kopurua 2024ko 1.09.334.20.481.00 2024 Transferentzia Alurr Dantza Taldea partida izendunari.

BOSGARRENA.- Ibarra 2024ko "Euskal dantza eta kulturaren sustapena" proiektua gauzatzeko eta diruz laguntzeko, Alurr Dantza taldearekin lankidetzat hitzarmena sinatzea.

SEIGARRENA.- Dirulaguntza hau Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean argitaratzea.

ZAZPIGARRENA.- Dekretu honen berri Kontu-Hartzaitzari ematea.

ZORTZIGARRENA.- Aipatu akordio hau interesatuari jakinaraziko zaio (E).

BEDERATZIGARRENA.- Udalbatzari burutzen duen hurrengo ohiko bilkuran dekretu honen berri ematea.

Ibarran, 2024ko ekainaren 4an
ZINEGOTZI ESKUORDEDUNA

Nagore Zubillaga Garmendia



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2024WDI10006-335-2024 Alkate Dekretua/335-2024 Decreto Alcaldía ()